


# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko urriaren 15a / 690. zenbakia



**BIRZIKLATZEAREKIN ARTEA EGIN**

**ARROPA-ESKULTUREN ERAKUSKETA, MONTERRONEN**

**ORAIN ETA HEMEN: HOMOSEXUALENDAKO TOPALEKUA/6 • KIROLA: KANPINGAGS ANTZERKI TALDEA/10**

AZALA: ALEX AZKARATE

**GREMIOEN GIDA/16**

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 15**  
Azkoaga, Iturriotz 17 ..... 943 79 79 99
- ZAPATUA, 16**  
Corcuera, M. Aranbarri 1 ..... 943 79 22 26
- DOMEKA, 17**  
Irizar, Erguin 11 ..... 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 18**  
Amezua, Santa Marina 32 ..... 943 79 09 74
- MARTITZENA, 19**  
Español, Araba etorb. 14 ..... 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 20**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30
- EGUENA, 21**  
Zabala, Zarugalde 42 ..... 943 77 16 30
- EGUBAKOITZA, 22**  
Azkoaga, Ferrerías 1 ..... 943 79 15 15

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERITXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea ..... 943 03 53 00  
Igaluatorioa ..... 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak ..... 943 79 39 00  
Emakumeak ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea ..... 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak ..... 112  
Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
DYA ..... 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
Astelehenetik  
egubakoitzera ..... 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan ..... 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan. ... egun osoa

- Arrasate**  
Astelehenetik  
egubakoitzera ..... 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan ..... 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
  - Espezialitateak ..... 943 03 53 11
  - Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak ..... 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak ..... 943 45 87 44

- ERTZAINZAK**  
Arrasate ..... 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua ..... 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea ..... 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza ..... 943 79 81 57

- MONTERRON LIBURUTEGIA**  
Monterron ..... 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Juan parrokia</b>	<b>San Andres eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (meza nagusia (euskaraz))	11:00 (euskaraz)
12:30 (elebiduna)	12:30 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b>	<b>Santa Marinako eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz)	Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
10:00 (elebiduna)	
12:30 (meza nagusia (elebiduna))	
19:00 (elebiduna)	
<b>Uribarri parrokia</b>	<b>San Isidro eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 (euskaraz)
Domeka 11:30 (euskaraz)	<b>Santa Teresa eliza</b>
12:30 (gaztelaniaz)	Domeka 12:30 (elebiduna)

**OHARRAK**

**GIOKELA JAIA EGINGO DUTE**

Bihar, zapatua, Giokela jaia egingo dute herriko hainbat harakinek eta Kajoi tabernak, 18:30ean. Batutako dirua Lore Gazteak eta Arrostitz-Txikitxu taldeen-dako izango da.

**1954AN JAIOTAKOEN JAIA**

1954an jaiotako gizonetako eta emakumezko arrasatearrek jaia egingo dute azaroaren 13an. Interesatuek urriaren 30a aurretik eman beharko dute izena, eta 50 euro ordaindu Euskadiko Kutxan.

**TRIKITIXA ESKOLA**

Trikitixa Eskolak aditzera eman du oraindik aukera dagoela soinu eta pandero eskolak hartzeko. Interesatuek Zerrajerako eraikuntza zaharrera jo beharko dute martitzen edo eguenean, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

**1942AN JAIOTAKOAK**

1942an jaiotako emakumezkoek euren eguna ospatuko dute urriaren 23an. Interesatuok jo Mari Carmen Aranbururengana urriaren 18a aurretik. Izena ematean hamar euro ordaindu beharko dira.

**FILMAK AMAIA ANTZOKIAN**

Asteburuan, filmak, Amaia Udal Antzokian.

**AEDrenAGENDA**

**HIRU HAUNDIXEK HIRU EGUNETAN**

Urriko azkeneko asteburuan Hiru Haundixek Hiru Egunean mendi ibilaldia egingo dute. Lagundu gura baduzu, jo AEDra.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Egitamu orokorra aditzera eman zuten**


Udalak Egitamu Orokorra jendaurrean jarri zuen Harresi aretoan. Horrez gain, berbaldiak antolatu zituzten, eta herritarrei eskatu zieten iradokizunak eta kezak aditzera emateko. Egitamu Orokorraren bitartez, etorkizuneko Arrasateren beharrak aztertu gura zituzten.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*“Erreparu”*

*—Erreparo emoten dost jentiai ze edade daukan preguntetiaik.*



JON IRAEGI

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**107.7ko autobusa munduko txoko ezkutuenetaraino heldu guran ibiliko da**

Arrasate Irratiko autobusak ez du mugarik ezagutzen. Herriko irrati-ko *Igo Autobusera!* magazinak txoko ezkutuenetaraino heldu gura du; horregatik, bada, datozen asteetan, *Ibili munduan* geltokia estreinatuko du. Izenak berak adierazten duen moduan, Arrasate mundura zabaltzea eta mundua Arrasatera hurbiltzea du helburu geltoki horrek. Horrela, atzerrian bizi den zure lagunarekin edo seme-alabarekin harremanetan jarri gura genuke edo zuk zeuk bidaia politen bat

kontatzeko izanez gero, *Igo Autobusera!* eta zu zeu ere ibili gurekin munduan! Egizu, bada, gurekin hitzordua, 943 71 17 31 telefono zenbakiaren bitartez edo [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidean.

**ASTEBURUKO GAINBEGIRATUAN**

Asteroko gainbegiratuan, literaturako Euskadi sarien gainean jardungo dugu Marina Etxegoien Oñatiko Haur Liburutegiko arduradunarekin. Horren ondoren Bedoñako Artazia baserriko txakolina dastatuko dugu.

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Astelehena, 11	<b>11°C</b>
<b>MAXIMOA</b> Egubakoitza, 8	<b>28°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>2,2 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 6	17°C	13°C	0,2 l/m²
Eguena, 7	27°C	13°C	- l/m²
Egubakoitza, 8	28°C	12°C	- l/m²
Zapatua, 9	25°C	15°C	- l/m²
Domeka, 10	21°C	13°C	0,2 l/m²
Astelehena, 11	20°C	11°C	1,8 l/m²
Martitza, 12	20°C	12°C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

**ZAPATUA**  
10:00 **Asteko elkarrizketak:** Marina Etxegoien, haur eta gazte literaturako Euskadi sarietan epaimahaikidea; Felix Etxagibel, mahats bilketaren gainean...

**DOMEKA**  
10:00 **Asteko elkarrizketak.**

**ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**

09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landá).  
Elkarrizketak.  
Danbakaren geltokia.  
Gazte Bulegoaren geltokia.  
Ibili munduan geltokia.  
Zozketak, etab...

11:05 **Musika**

12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

12:20 **Zorion agurren tartea.**


12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak

13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**

14:00 **IGO AUTOBUSERA! (errep.)**

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

**KALEINKESTA/ Uren rezibuei inpuesto ekologikue jarri gure dutzie, konsumue txikiketako.**



**RAMON OSINAGA**  
Langillie



**AMAIA OVEJERO**  
Langillie



**JON BARRIOCANAL**  
Langillie



**ARANTZA CARNERERO**  
Langillie



**PACO MORALES**  
Langillie



**AINHOA GARMENDIA**  
Langillie

Inpuestue jarritte be, jentiek ur kantidade bardiñe gastaiko dau. Tabakuekin be, inpuesto haundixek euki arren, ez da gutxiu erreten. Eta auskalo diru hori zeñien poltsikora doien.

Nik pentsetan dot inpuesto gehixau pagau arren, ohitturie aldaketie oso gatxa izengo dala, ure bardin gastaiko dogule. Hortan, ez dot pentsetan aldaketarik egongo danik.

Ez dot pentsetan horrekin ezer lortuko danik. Gaiñera, jakin gureko neuke diru horrekin ze egingo dauen. Behintzet, ekologixien onerako ibilliko baleue, ez neuke txarto ikusiko.

Hillero euro bat gehixau pagatie ez jaku inporta, baiñe ikusi egin biher zeozertarako balixo dauen. Hala eta be, nik uste dot jentiek iguel gastetan jarraituko dauela, ez dala igerriko.

Idea ona dala uste dot, ur larregi gastetan doguleko. Nik uste dot gehixau pagau biher bada, jentiek erantzungo dauela. Bestela, ez dot pentsetan kontureketan garenik.

Idea interesgarrixe pentsetan jat. Jentiei poltsikue iku-tu ezkeru, uren gastue zentzu haundixauekin egingo dauela pentsetan dot. Gureko neuke horrek inpuesto horrek aurrera egittie.

**TXALOAKETATXISTUAK**



**TXISTUAK SEINALEZTAPENA ALDATU BEHARREAN** Santa Mariara igotzeko bidegurutzean dagoen biribilgunea berritu egin dute. Biribilgune horren ondoan lan egiten duten irakurle batzuek esan digute bidegurutze horretako seinaleztapena aldatu egin behar dela: hilerri-joateko seinaleak autoak kontrako noranzkora bidaltzen ditu; eta errepidean dagoen koska bat soberan dago.

**ETABARRUAN...**

ORAIN ETA HEMEN / 6

KIROLA / 7

GAZTEAK / 9

**Udaltzainei kritika**

Udaltzain batek larregiko indarke-ria erabili izana kritikatu dute hainbat herritarrek.

**Saskibaloia, Iturripen**

Mugarri Alkesa Arrasate saskibaloia taldeak bihar, zapatua, jokatu du Iturripen kiroldegian.

**Kokeinen kontzertua**

Hilaren 22an, Kokein taldeak kontzertua egingo du, Kultur Errotak eta AEDk antolatuta.

**ASTEKODATUA**

**19**

**TALDE ARRASATEARREK EMAN DUTE IZENA DANBAKAN**

Arrasateko 19 talde eta bakarlari aurkeztu dira Goienak antolatuen Danbaka musika lehiaketara. Arrasate da parte-hartzailerik gehien dituen Debagoieneko herria.

**BESTE EKESANA**

**“** Gaur egun, aipatzen denean ‘komunikazio sarea’ automatikoki datorkigu koadrikularen irudia, erregularrak, berdina edozein puntutan. Eta irudi hau aplikatzen badiogu munduaren antolaketari, emaitza litzateke milaka miloi puntu berdin, koadrikulan lotuta, abiada itzelak hutsean utzita distantzia, parean direla urrunekoa eta hurbilekoa. Oinarrian koadrikula lukeen munduak, azalean luke uniformetasuna. Bada sarearen beste irudi bat, amarauna, armiarbaren sarea. Amarauneko puntu guztiak ez dira berdinak, sareak berak azaltzen ditu hurbiltasunak eta lehentasunak. Amaraunaren arabera munduan, ez dago uniformetasunik, mailakatu egin daitezke harremanak hurbiltasunaren arabera”

**MIKEL IRIZAR**  
‘ARGIA’/04-10-17

**HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta**



*Bizitza bilatzen dut*

**N**eska ikasleak alokatzeko bizitza bilatzen dugu”, unibertsitateko pareta, leiho eta txokoetan irailen ikusten diren iragarkien artean. Tira, here grazia aurkitu diot esaldiari. Eta nire artean pentsatu dut ez ote garen denok bizitza bilatzen dugunak... Eta bizitzaren zentzuaz gogoetan, alderantziz, hankaz gora ikusten dudana bizitza honi erreparatu diot une batez: GALindo kalera atera duten bitartean, atxilotu, torturatu eta preso kopuruak gora egiten du egunetik gonera. Kritikotasuna eta informatzeko xedea –aspaldi galdutako armak– alboratuz, mass mediek espekulaziora, intoxikaziora eta zakar hutsa eskaintzera jotzen dute. Gutxi batzuk hirulau etxe, txalet eta batzoki dituzten bitartean, gazteteen kontrako utzarazte basatiak eguneroko kontu bihurtu dira. Eta unibertsitatean ere, zientzia fikzioaren eta Mari-

txuren mirariaren arteko azken nahasketa ikusi dugu. Gazte Abertzaleak delako taldeak kartel eta panfleto bidez honakoa dio: “Euskal Unibertsitate Nazionalerantz. LOUa gelditzea lortu dugu!”. Eta ondotik Iztuetaren lege autonomikoaren zurikeria galanta: ikasleek eskubide gehiago, “iparraldeko” ikasleen integrazioa (sic), euskara “meritua” lanpostuetan... EAEko lege autonomikoa LOUaren antitesia delakoan... Surrealista? Kaotikoa? Bidegabekoa?

Eta artean, Zuzenbideko ikasketak egiten jarraitzen dut: espainiar epaileak independenteak ei dira, nazioarteko itunetan indarraren erabilera debekatzen omen da, bakea eta segurtasunaren mesedetan...

Liburutegira noa, Isaac Asimoven fikzio liburu batek kalte egingo ez didalakoan. Eta bitartean, bizitzaren zentzuaz gogoetan, bizitza bilatzen jarraitzen dut.

**“Eta bizitzaren zentzuaz gogoetan, alderantziz, hankaz gora ikusten dudana bizitza honi erreparatu diot une batez”**

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Iker Barandiaran  
**ERREDAKZIOA**  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai  
**MAKETAZIOA**  
Alex Azkarate  
**ZUZENTZAILEA**  
Sergio Azkarate

**PUBLIZITATEA**  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martinez  
Imanol Elortza  
**ADMINISTRAZIOA**  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

**BANAKETA**  
Marta Leturia  
**LEGE-GORDAILUA**  
55-1124/88  
**ISSN**  
0214-4654  
**TIRADA**  
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aramaioko Udala

**ASTEABIHITZETAN**

**Bertsotan irakasteko aukera ematen**

Leintz bailarako euskara elkarteak batu egin dira ibarreko gaztetxoei bertsotan ikasteko aukera emateko. Egitasmo hori 9 eta 11 urte bitarteko gaztetxoei dago zuzendua.

Bertsotan egiteko aukera, hala ere, badute gure ibarreko gaztetxoei; izan ere, derrigorrezko hezkuntzan bertsolaritza gai modura lantzen dute. Euskara elkarteek, baina, gaztetxoek duten lehen harremana hartuko dute abiapuntu, gero, bertso eskola sortzeko. Orain arte, AED elkartearen eskutik nagusiek izan dute bertsotan ikasteko aukera. Orain, gaztetxoek ere bertsotan ikasi ahal izango dute.

**Jakien bilketa Eroski hipermerkatuan**

Aurten ere jakien bilketa egingo du Arrasaten Gipuzkoako Jakien Bankuak. Urriaren 15ean eta 16an batuko dituzte jakiak Eroski hipermerkatuan, gero, Gipuzkoako behartsuen artean banatzeko.

Jakien bankua Estatu osoan lanean dabilen erakundea da eta jasotzen dituzten jakiak hainbat lurraldetan banatzen dituzte. Elkarte horrek urte asko daramatza Gipuzkoan lanean. Arrasaten iaz hasi zuten ekimen hori, eta urtean behin egiten dute. Jakiak batzeko lana herriko boluntarioek egiten dute.

**Nafarroa Oinezen alde lanean**

Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen aldeko ekimenari laguntzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte Arrasaten.

Egitasmo horren atzean dabilta AED elkarte, Portaloi elkarte, Arrasateko Udala eta Mondragon Hotela. Lehenengo ekitaldia joan den eguaztenean Harresi aretoan zabaldu zuten argazki lehiaketa izan zen. Bertan, Nabarralde elkartearen eskutik, Igor Etxabe argazkilariaren Nafarroa Oinezen gaineko 30 argazki daude erakusgai. Ekitaldi hori, baina, ez da bakarra: mahai-inguruak eta kontzertuak ere egingo dituzte-eta.



**Ez dute hilerri zaharra irekiko**

Arrasateko Udala aztertzen dabil Domu Santu Egunean Aldaiko hilerri zaharra ez zabaltzea. Hilerria egoera txarrean dago, eta segurtasun arazoak daude. Gainera, nitxo eta hezurtegi gehienak zabalik daude, eta horien itxura ez da batere ona. Joan den urtean ordutegia murriztu egin zuten, baina aurten ez dute gura zabaldu.



**USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran**

*Musika harrobi handia*

**D**agoeneko, eskuarteau dauzkagu Danbaka musika lehiaketakarako batu ditugun CDak. Taldeen izen-ematea oso geldoa izan den arren -urdiritasuna nagusitzen hasi zen une batzuetan, talde gehienek azkeneko orduan parte hartu dutelako- azkenean, berrogeitik gora lan jaso ditugu. Izugarritzko emaitza da hainbeste jasotzea, eta

ibarrean talde asko daudela jakin arren, ez geunden ziur hainbeste jasoko genituenik. Kontuan izanda izen handiena daukaten musika talde askok ez dutela esku hartu, zerbaki polita da jaso duguna. Orain epaimahaiak lehenbailehen klasifikatutako taldeen zerrenda aditzera eman beharko du, eta zoritxarrez hainbat talde kanpoan gelditu beharko dira.

Askok esan digute bazela ordua ibarrean halako zerbait antolatzeko. Ezagun da ez garela hiriburu baten bizi eta hemengo taldeek aditzera emateko zailtasun handiagoak dituzte.

Ziur egon lehiaketa honek zelanbaiteko oihartzuna izango duela, eta dagoeneko lortu du, eta hemen daukagun harrobiaren gainean beste leku askotan ere jakitun izango direla.

Hasiera besterik ez dela esan beharko dugu.

**ASTEKOIRUDIA**



**ZERRAJERAKO ERLOJUAREN ERAIKINA EUSKAL KULTURAREN ONDAREAN SARTU DUTE**

Astean jakin dugu Zerrajerako erlojuaren eraikina Euskal Kulturaren Ondarearen Zerrenda Nagusian sartu dutela. Bide batez, kultura ondasun moduan, monumentu izendapena egin diote Union Cerrajera enpresa zenaren eraikin horri. Gaur egun enpresa hori osatzen zuten eraikin gehienak botata dau-

de, eta bertan hainbat enpresa txiki daude, tartean Goienako bulego batzuk. Orain dela urte batzuk, Udalak eraikin hori ordenazioz kanpo uzteko asmoa aditzera eman zuenean, herriko hainbat taldek gogor egin zuten erabaki horren aurka. Azkenean, lortu dute eraikina aintzat hartzea. //I.B.



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebun hizkiak




**Gorka** ileapaindegia peluqueria

Ordutegia:  
Astelenehik-ostiralera 09.30-20.00  
Larunbatetan 08.00-14.00  
Bainuetxe 10 - 943 77 13 78

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



## NAHIKO LAN ARRAINTZAR HORI SUKALDEAN SARTZEKO!!!

**A**rgazkiko laguna Zigor Urain arrasatearra da. Eta bera bezain handia den arraina Deba eta Itziarren artean arrantzatu zuen, joan den zapatuan. Argazkiko itsas aingira edo kongrioak 15 kilo inguru pisatzen zuen, eta zapatuan arrantzatu bazuen, domekan Uribarri elkartearen elkartu ziren Zigor eta lagunak arraintzar hori jateko afaritan. Argazkia Uribarri elkarteko sukaldean atera zuten, baina guk beste argazki bat ere gurako genuke, arrain hori jateko elkartu ziren lagun guztiena, hain zuzen. Izan ere, 15 kiloko itsas arraina jateko lagun asko elkartu behar dira mahaiaren bueltan, ala?



## JON ETXEBERRIA ETA PILAR ALBIOL DOMEKA ARRATSALDEAN EZKONDU ZIREN, KATALUNIAN

**A**rrasateko koadrila galanta izan da asteburuan Katalunian, Vilanova i la Geltrún, Jonen eta Pilarren ezkontzan. Domeka arratsaldean ezkondu zen argazkiko bikotea, Olivellako baselizan, eta aipatzekoa da elizkizuna euskaraz eta katalanez egin zutela. Horren ondoren Mas Solers jabegoan afaldu zuten, leku ikusgarrian. Ezkontza domekan izan

bazen ere, Arrasateko espedizioa zapatuan abiatu zen Vilanova aldera, eta, zubia aprobetxatuta, lau egun egin dituzte han. Jonek eta Pilarrek lagunekin batera egin zuten parranda, Sitges-en. Ezkonberriak dagoeneko Zeelanda Berrian daude, eta Australia eta beste uharteren batera ere joango dira. Haraino iritsiko zaielakoan, zorionak, *Azkenpote* koadrilaren partetik!



## TXURI-URDIN TALDEAREKIN SORIARA, REALA ANIMATZERA

**A**rrasateko Txuri-Urdin taldeak irteera antolatu du urriaren 31rako. Realak Numantziaren kontra jokatu du egun horretan, eta joan den urtean Valladolidera joan ziren moduan, aurten Soriara joango dira Txuri-Urdinekoak. Irteera 08:00etan egingo dute, eta gauean iritsiko dira. Reala animatzeaz gain, baina, arrasatearrek badute beste asmorik. El Fogon de Salvador erretegiaren bazkalduko dute, eta ikustekoa da izango duten menua. Izena eman gura dutenek lehenbailehen joan beharko dute Monte tabernara.



## HANKAZ GORA UTZI ZUTEN BILBO 'AZU'-REN EZKON AGURREAN

**A**rrasateko bikote Azu eta Sergio Mediterraneoan barrena itsas bidaiari izango dira dagoeneko, ezkon bidaiari gozatzen. Urriaren 9an ezkondu zen bikote hori, baina Azu-ren ezkon agurreko parranda irailaren 18an egin zuten, Bilbon. Argazkian ikus daitekeen moduan, koadrila polita elkartu zen agur afaria egiteko. Eta, esan digutenaren arabera, horietako asko hilabete batzuetan ez dira Bilbora itzuliko, egin zuten parrandarekin Bilbo hankaz gora utzi zuten-eta. Aurrekoa broma da, baina ondorengo ez: zorionak, bikote!!!

## ELKARRIZKETA

ANA URETA/ALDARTE ELKARTEKO KIDEA

*“Errazagoa da hirietan ‘armairutik ateratzea’ herri txikietan baino”*

ARRASATE IRRATIA / UBANE MADERA

**A**rrasaten topaleku bat sortu gura dute, homosexualitatearen inguruan sortzen diren egoerak aztertzeko. Bilboko Aldarte elkarteak antolatuko du topalekua, Emakume Txokoan. Elkarteko kide Ana Uretarekin izan gara.

**Homosexualei zuzendutako topalekua antolatu gura duzue, baina edozeinek parte har dezake, ezta?**

Bai, hori azpimarratu beharra dago. Seguru aski gay eta lesbiana izango dira topaleku horren beharrik handiena dutenak, baina edozeinendako irekita dago. Homosexualitatearen gainean gehiago jakin nahi dutenendako da.

**Adibidez, gurasoek ere parte har dezakete?**

Bai. Bilbon iaz halako topaleku bat abiarazi genuen bereziki gurasoendako eta anai-arrebendako, eta oso ondo hartu dute. Batez ere amak etortzen dira. Beti esan ohi dute amek halakoetarako gertutasun handiagoa erakusten dutela, eta hala da. Askotan beldurra sentitzen dute, eta horri erantzun behar diogu. Gurasoen artean sortzen diren elkarrizketak oso interesgarriak dira eta esperientziak elkartrukatzen dituzte... Arrasaten halako zerbait antolatu gura dugu.

**Izenak berak dio topalekua dela, hortaz, hitzaldiak eta baino gehiago, esperientziak kontatzeko lekua-edo izango da...**

Denetarik izango da. Abiapuntua norberaren esperientzia izango da, baina askotan galdera edo kezka askori erantzun behar izaten diegu. Adibidez, galdetu ohi dute: “Zergatik ni homosexuala naiz? Ni txikitatik naiz baina beste hori ez, zergatik?”. Halakoei erantzuteko teoria apur bat landu beharra dago. Bestalde, landu gura dugu sexualitatearen dagoen aniztasuna; landuko dugu, baita ere, gurasoei jakinarazi baino lehen landu beharreko atalak...



ALDARTE ELKARTEA

*“Gure gizartea irekiagoa da, baina dena den askok bakardadean bizi du homosexualitatea”*

Esperientzietan oinarrituko gara, baina adituek horretaz diotena ere jakin behar dugu... Edozelan ere, batez ere esperientzian oinarrituko gara eta talde dinamikak landuko ditugu. Hala, norberak barruan dituen gauzak ateratzen joaten dira.

*“Normalean homosexualak lagun bila etortzen dira halako topalekuetara”*

Zelanbait bakardadetik aldentzeko, lagun berriak egiteko... aukera emango du?

Hori da helburua. Gay eta lesbiana elkartzea da helburua eta hortik sortuko den guztia onartuko dugu. Normalean, lagun bila etortzen dira halakoetara.

## Udaltzain baten larregiko indarkeria kritikatu dute

UBANE MADERA

Joan den astelehenean, hilak 4, Arrasaten izandako atxiloketa batek lekukoak harrিতuta utzi zituen. Udaltzain batek larregiko indarkeria erabili zuela diote. Atxilotutako gazteak baieztatu egin digu gertaera.

Lekukoek emandako datuen arabera, bi gaztek automobilak une labur batez San Andresko biribilgunean aparkatu zituzten, berbetan zebiltzan bitartean. Eta hala zeudela, udaltzainen ibilgailu bat azaldu zen “abiada bizian”. Lekukoek arabera, udaltzaina ibilgailutik jaitsi eta identifikazioa eta paperak eskatu zizkion automobila biribilgunean utzita zuten gazteetako bati, arrasatearrari. Baina hark garrantzirik eman ez eta automobilera sartu zen, gehiago ez oztopatzeko asmoarekin eta bere bidea jarraitzeko. Gero, Eroskirako bidea hartu zuen. “Baina ez zen ezta hurrengo biribilgunera iritsi ere egin; udaltzainak ibilgailuan sartu, argi urdinak eta sirena piztu eta arrasatear gaztearen automobila aurreratu eta gero, automobila gerarazi zuen. Gero gaztea automobiletik atera zuen, walkie-talkietik laguntza eskatu zuen eta beste udaltzain bat eto-

rri zenean, bien artean atxilotu egin zuten gaztea, bortizki. Lurre-ra eta guzti bota zuten, esku-burdinak ipini zizkioten eta eraman egin zuten”.

## GERTATUTAKOBAIEZTATUTA

Atxilotutakoa O.I. arrasatearra izan zen. Lekukoek esandakoa baieztatzeke, berarekin berbetan izan gara, eta esandakoa hala gertatu zela adierazi digu; esan digunez, bere ustez larregiko indarkeria erabili zuen bera atxilotu zuten udaltzainak. Esan digu udaltzain hura “oso urduri” ikusi zuela hasiera-hasieratik. Gaineratu digu atxilotu ostean udaltzainaren eraman zutela eta esku-bideak eta irakurri eta deklarazioa egin ostean askatu egin zutela, baina, edozelan ere, atxiloketa egin zuten udaltzainak “agintariari kasu ez egiteaz” akusatzen zuela. Hortaz, seguru aski udaltzaingoak salatu egingo du arrasatear gaztea. O.I.-k, berriz, udaltzain hura salatu edo ez aztertzen dabilela esan digu.

## UDALTAINGOTIK, ERANTZUNIK EZ

Horrekin lotuta, Arrasateko Udaltzaingora ere jo dugu, argibide bila. Baina Jose Luis Etxeberria udaltzain-buruak ez du ezer esan nahi izan. “Esan beharrekoa epaitegian esango duela” adierazi digu.




Lekuko ugarik ikusi zuten San Andresko biribilgunean gertatutakoa.

BITTORI  
ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**BASATI  
TABERNA**  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
943 711768



ARTXIBOA

Taldeak beharrezko du bolada txarrek amaitu, sailkapenean gora egin ahal izateko.

SASKIBALOIA

# Indautxuren kontra amaitu gura du Mugarri Alkesak hasiera txarra

Arrasateko saskibaloia taldeak Ligan jokatu dituen hiru jardunaldiak galdu ditu

XABIER URZELAI

Liga hasiera txarra atzean utzi gura du Mugarri Alkesa Arrasate Saskibaloia Taldeak. Horretarako, bihar arratsaldean izango dute aukera ona, Iturripen jokatu dute eta Loiola Indautxu talde bizkaitarraren kontra.

Joan den astean Arrasateko saskibaloia taldeak ezin izan zuen Azpeitian irabazi (79-54), eta dagoeneko hiru dira jarraian galdu dituzten partiduak. Horrek esan gura du Zurutzaren mutilek Liga Txapelketan ez dutela norgehi-

gokarik irabazi; eta sailkapenean gora egiteko lehenbailehen amaitu behar dute bolada txar horrekin, larri ibili behar dira, bestela.

**LOIOLA INDAUTXU, KONTRARIO EZAGUNA**  
Oraingo asteburuko kontrarioa ezaguna da Arrasateko taldearentzako, askotan neurtu dituzte eta indarrak Loiola Indautxu talde bizkaitarraren kontra. Mugarri Alkesakoek badakite bizkaitarrak ez direla kontrario erraza, baina konbentziturik daude euren kontra irabazita taldeak gora egin dezakeela. Eta, Iturripen jokatu ezinbestekoa da zaleen berotasuna.

**BIGARREN ZATIAN BEHERA**

Joan den astean arrasatearrek zein kontrario izan zuten kontuan hartuta, Azpeitian galtzea ez zen ezustea izan.

Zurutuzaren mutilek bazekiten Azpeitiko kantxan etekina lortzeko gauzak oso ondo egin behar direla, eta lehenengo zatian horrela egin zuten. Atsedendian, azpeitiarrek alde oso txikia zeukaten (31-30). Norgehiagokaren gakoa, baina, hirugarren laurdenean egon zen, azpeitiarrek 10-0ko partziala egin zutenean. Mugarri Alkesak alde hori txikitu orduko lortu zuen Lan Mobil taldeak beste 10 puntuko aldea.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

## BIHAR HASIKO DA ZALDIBARKO TXAPELKETA

### PARTIDUAK

**URRIAK 16, ZAPATUA. EPAILEAK**

- 11:00: Abokajarro - Irati. **Billy & The cowboys**.
- 12:00: Billy & The cowboys - HLB 108. **Irati**.
- 13:00: AT Celaya - Betrayer. **HLB 108**.
- 16:00: Goma2 - Manhattan Pippol. **You Know!**
- 17:00: You Know! - Dribling. **Goma 2**
- 18:00: Torpedo Musakola - Ekipo Aldeano. **Dribling**.

**URRIAK 17, DOMEKA**

- 11:00: Tomahawk - La Kuadrilla. **Saukelu Champion**.
  - 12:00: Saukelu Champion - Lasagabaster. **Tomahawk**.
  - 13:00: Fuxion - AC Surcos. **Lasagabaster**.
- Deskantsua: Iriztu.



**IRATIK ETA ABOKAJARROK ESTREINATUKO DUTE LEHEN JARDUNALDIA**

Abokajarro eta Irati taldeek jokatu dute aurtengo Zaldibarko Txapelketako lehenengo jardunaldia. Oraindik ere gazteak badira ere, Abokajarroko jokalariek dagoeneko ondo baino hobeto dakite Zaldibarren jokatzeko zer den. Irati taldeari dagokionez, ez nahastu. Talde horrek ez dauka lehenengo Irati STS taldearekin zerikusirik. Etxerateko, Koka Juniors-eko eta Komando Alpagateko jokalariek osatu dute talde hori.

**FALTA BAT GUTXIAGO BEDERATZI METROTATIK ZIGOR-FALTA BOTATZEKO**

Joan den urtean jarri zuten lehenengoz zigor-faltaren araua. Hau da, talde batek norgehiagokaren zati bakoitzeko sei falta baino gehiago eginez gero, bederlatzi metrotatik zigor-falta izango du. Aurtun, baina, egin daitekeen falta kopurua txikitu egin dute, zati bakoitzeko bost falta egin ahal izango dira-eta. Kopuru horretatik aurrera egiten den falta bakoitzeko, kontrarioak, hesi barik, falta jaurtiketa zuzena egin ahal izango du.

ATLETISMOA

## Arrasateko atletak hirugarren Zaldibiako 400 metroko errelebodun lasterketan

Joan den asteburuan, Zaldibiako jaiak zirela-eta atletismo proba egin zuten. Lehenengoz egin zuten 400 metroko errelebodun lasterketa, eta Arrasateko ordezkariak hirugarrenak izan ziren.

Zaldibiako kaleetan zehar egin zuten lasterketa ikusgarria izan zen. Horrelakoetan gertatzen den moduan, lagun asko izan ziren atletak animatzen. Arrasateko laukotea Markel Blancok, Martin Davilak, Ander Ansoategik eta Jon Ander Amadok osatu zuten, eta oso gustura geratu ziren egin zuten lasterketarekin, batez ere kontrario gogorak izan zituztelako.

KIROLAGENDA

**JOKATZEKOAK**

**SASKIBALOIA**

- Mugarri Alkesa - Loiola Indautxu Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
- Arrasate - Atletico San Sebastian Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Musakolan.
- Arrasate - Easo C Juniorrak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

**ESKUBALOIA**

- AGR Arrasate - Usurbil Seniorrak. Domekan. 12:00. Iturripen.
- Bergara - Arrasate B Big. seniorrak. Domekan. 12:15. Bergaran.
- Pulpo - Arrasate Gazteak Neskak. Zapatuan. 16:00. Zumaian.

**FUTBOLA**

- Tolosa - Mondra Preferentea. Domekan. 16:30. Tolosan.
- Mondra - Eibartarrak Ohor. Gazteak. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen.
- Arrasate - Zestoa Gazteak. Zapatuan. 11:45. Atxabalpen.

**Ilixtxa - Arrasate**

Infantilak. Zapatuan. 11:30. Bikuñan.

**Mondra - Urki**

Emakumeak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.

**ERRUGBIA**

Arrasate - Bera Bera B Seniorrak. Zapatuan. 17:00. Garagartzan.

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**

- Preferentea: Mondra - Anaitasuna ..... 1-1
- Lehen gazteak: Antoniano - Arrasate ..... 4-1
- Ohor. gazte maila: Aloña - Mondra ..... 3-5
- Emakumeak: Mondra - Agurain ..... 4-0

**SASKIBALOIA**

- Seniorrak: Lan Mobil - Mugarri Alkesa ... 79-54
- Kadeteak: Ordizia - Arrasate ..... 29-77
- Juniorrak: Andraitz - Arrasate ..... 43-71

**ESKUBALOIA**

- Lehen territ: Urnieta - AGR Arrasate ..... 22-25
- Bigarren territ: Arrasate - Aloña. ... Bertan behera.

**ERRUGBIA**

- Senior: Arrasate B - Bera Bera C ..... 17-10

FUTBOLA

## Bigarren postuan dagoen Tolosaren kontra, domekan

Preferente mailako Mondrak kontrario gogorra izango du domekan, bigarren postuan dagoen Tolosa, hain zuzen. Azken norgehiagoketan ikusitakoaren arabera, Josu Zubiarene taldeak asko hobetu behar du Tolosari irabazteko. Joan den astean arrasatearrek 1-1 egin zuten Atxabalpen, eta futbol zelaiaren erakutsi zutena ikusita, arrasatearrek pozik geratu ziren eskuratutako puntuarekin. Lehenengo minutuetan Mondra gogotsu zelairatu zen, baina Anaitasunak erdialdea bere egin zuenean Arrasateko taldeak behera egin zuen.

ESKUBALOIA

## Usurbilen kontra bigarren garaipenaren bila

AGR Arrasate Eskubaloia Taldeak denboraldiko bigarren garaipena eskuratu gura du domekan. Joan den astekoa baino kontrario gogorragoa izango dute aurrean, izan ere, ligako lehenengo jardunaldian Arrasateko entrenatzaile Andoni Arando ez zen batere gustura geratu: "Defentsan nahiko ondo moldatu ginen, baina Usurbilen kontra joan den astean baino hobeto eraso egin behar dugu, bestela jai daukagu". AGRk 22-25 irabazi zuen Urnieta-aren kontra, baina usurbildarrek Urnieta-koek baino askoz ere hobeto defendatu dute, seguru.

ERRUGBIA

## Bihar, Bera-Bera izango da berriro ere Garagartzan

Joan den astean, Arrasate errugbiko bigarren taldeak Bera-Bera C taldearen kontra neurtu zituen indarrak (17-10), eta bihar, Arrasateko lehenengo taldea izango da Bera-Bera B taldearen kontra lehian. Egia esan, joan den asteko jokalaririk ia berdinak izango dira bihar arratsaldean Garagartzan, nahiz eta maila bestelakoa izan. Joan den astean Gipuzkoako mailako liga jardunaldia zen, eta biharkoa Euskadiko mailakoa izango da. Joan den astean azkeneko minutuan gailendu zen Bera-Bera, eta bihar ere parekotasuna izango da Garagartzan.

## BOTEPRONTUEN

## Arkaitz Zeziaga

## ABIAN FISIOTERAPIA ZENTROA

XABIER URZELAI

Arkaitzek Toledon ikasi euen fisioterapia, eta hainbat lekutan lan egin eta gero, Saioakin eta Kizkitzakin batera Abian fisioterapia zentrua zabaldu dau. Julixuen hasi zien lanien, eta hasiera ona euki daue. Zigorrolako etxe barrixetan ipiñi daue zentrua.

## Mondraguen, emuten dutzogu inportantziarik gorputza biherdan moduen eukittie?

Gerueu eta haundixae, jentiek gerueu eta gehixau ezaguketan dau-eta geure lanbidie. Normalien min daukienien etortendie, baiñe badau hillero etortendian jentie be. Hobe da min haundixe euki baiñe lehenau etortie, osaketako be errexae da-eta.

## Ze ofreziduten dozue Abian-en?

Abian-en zerbitzu partikularra edo seguruen bittartezko zerbitzue ofreziduten dogu: fabrikatik datorren jentien dako, kotxiek akzidentie euki dauenandako...

## Ze ordutegi daukietue?

08:00etan hasten gare lanien, eta 20:30ien bukaketan dogu. Hori bai, azkeneko momentuen bateron bat gerriko miñekin edo larri etortendian bada, luzie geraketan gare.

Zeuen lana zelakue dan ikusitie, esango neuke zeueik daukietuela masaje baten biher haundixena.

Bai, askotan postura txarrien egitten dogu-eta lan. Geure artien ondo zainketan gare, masajiek eta holakuek emunez.


Argi itxi biher da, baiñe, zeueik ez zariela masajistak.

Ez, hori argiketie komeni da, geu fisioterapeutak gare-eta. Bereiztu egin biher da masajisten eta fisioterapeuten artien.

Zelako jentie etortendian da zeuengana?

Esango neuke neurri haundi baten 30 urtetik 50 urtera arteko jentie etortendian dala hona. Baiñe gaztiauek eta zaharrauek be etortendian die.

Zeintzuk die rehabilitaziórako lesiño txarrenak?



*“Geure lanbidien dauen intrusismuek egitten dust min, titulo barik lanien dabillen jentiek”*

Errekuperetako lesiño neurologikuek die txarrenak, denpora luzie biher da-eta. Horrez gain, oso traumatikuek dien operaziñuetatik errekerpetie be gogorra izeten da. Kontraktura muskularrak eta holakuek belaxe konponketan dogu.

Zerek egitten dutzu begixetan min?

Geure lanbidien dauen intrusismuek. Ez dot gure iñokin sartzie, baiñe min egitten dust titulo profesional barik lanien dabillen jentiek.

Bizi Zigorrolan eta lana be bertan; independiente izenda be...

Hori izengo zan... (Barre) Egixe esateko, Mondrague igerriko

*“Errekuperetako lesiño txarrenak neurologikuek diez, denpora luzie biher da-eta”*

geuke faltan, Zigorrolan bakarrik aspertu egingo gitzake-eta.

Zeure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Eskuek ondo eukittie, eta krema on bat.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei?

Danek esaten dauena, aparkalekuek. Horrez gain, txarto komunikate dauela esango neuke, eta hamengo transporte publikuekin...

Eta, ze dauko ona?

Geure herrixe dala, eta mendixe, hondartza eta hirixek nahioko gertu dauzela.

Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeñekin?

Ana Botellakin. (Barre)

## NIREBIDAIAHURA/ Jon Sagasta

Kanadara / 2004ko udan

Ternuko egonaldian gazte jendearekin baino nagusiekin tratu handiagoa izan zuela dio Jonek: “Han gazte gehienak kanpora joaten dira-eta ikastera”. Labradorren eta Ternuan egon eta gero, aste gutxi geratzen zitzaizkion Jonen bidaiari, eta egun horiek Kanadako hiri nagusiak ikusteko aprobetxatu gura zituen: “Labradorren eta Ternuan lanean ibili nintzen, bestela oso bidaia garestia izango zelako. Azken asteak, baina, turista moduan egin nituen hiri batetik bestera.

Bisitatu zuen lehenengo hiria Montreal izan zen. Arrasatearrak lau egun egin zituen aterpetxe batean, baina lo egitera baino ez zen joaten hara: “Goizean goiz jaiki eta kalera joaten nintzen, hiria ezagutzera. Egun osoa gora eta beheira ibili eta gero, neka-neka eginda iristen nintzen aterpetxera. Montrealek Europako hirien kutsua daukala esango nuke, baina arraza askotariko jendea bizi da han. Deigarria iruditu zitzaidan han zegoen gazte mordo; unibertsitatearen eraginez izango da. Deigarria iruditu zitzaidan, baita ere, hango denda asko lur azpian daudela. Baina jakinda Kanadan neguak zein gogorrak diren, ez da harrizkoa, kalean ez da-eta giro izango”. Montrealean eraikin handiak daude, baina hori ez da hiriko gauza politena: “Ikustekoa da Montreal; hara joanez gero, alde zaharra eta portua bisitatzea gomendatuko nuke.


Montrealdik Quebecera joan zen Jon: “Quebecera autobusez iritsi nintzen, eta pentsatuta neukana baino egun gutxiago egin nituen han. Bi egun behar izan nituen hiri hori ikusteko. Hori bai, geratu ere ez nintzen egin. Turista asko zeuden han, eta bisitatzeko leku polita bada ere, ez zeukan ezer berezirik. Bidaiaren azken egunak Ottawa egin zituen Jon: “Ottawa ere ez da oso deigarria, nahiz eta badituen gauza interesgarriak. Ni izan nintzen aterpetxea, adibidez, berritutako kartzela zen, eta han geundenok zigor-geletan egiten genuen lo”.

XABIER URZELAI



Quebecen uste baino denbora laburragoa egin zuen Jonak.

Garagardo ona, giro hobea



TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35



## Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude? Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



GUREGAIK / KULTUR ERROTAKO KONTZERTUAK

# Datorren egubakoitzean, Kokein musika talde eibartarrak kontzertua emango du

IKER BARANDIARAN

Datorren egubakoitzean, hilaren 22an, Kultur Errotak eta AEDK antolatuta kontzertua egongo da gaztetxean. Eibarko Kokein talde indartsuak azkeneko kantuak aurkeztuko ditu Arrasaten.

AEDK eta Topaguneak, Kultur Errotaren bitartez, indarrak batu eta ikasturte hau gogor hasi dute. Izan ere, bi elkarte horiek asmoa dute hainbat kontzertu antolatzeko. Lehengo datorren egubakoitzean, hilaren 22an, egingo dute. Gaztetxean izango da eta 23:00etan hasiko dute. Kultur Errotak antolatzen dituen ekitaldi gehientsuenak bezalaxe ekitaldi hori doan izango da.

### MUSIKARI BETERANOAK

Kokein taldea 1999ko urrian sortu zuten Eibarren. Sasoi hartan Storbais taldeko Fory ibili zen bateria jotzen, gaur egun taldean jarraitzen duten Jatsu (gitarra eta baxua) eta Zaloarekin (ahotsa). Hiru lagun horiek, aurretik, beste talde batzuetan ibili ziren (Luther, Ehun Kilo, Kukka...).

Eibarko entsegu etxabetan maketa grabatu zuten, baina bateria jotzailea aldatu egin behar izan zuten. Kafha taldean ibilitako Lete batu zitzaion hirukoteari.

Askoren ustetan, taldea indartu egin zen orduan. Musikarekiko grinak batu zituen lau gazte horiek, eta emaitzak ere halakoak izan ziren.

### LEHENENGO LANA, 2002AN

2002an, Kokein taldeak sei abestiz osatutako disko laburra grabatu zuen. Ekoizpen artistikoaren ardura Pilt taldeko Rafa Ruedak hartu zuen. Horrez gain, Pilt taldeko Xanpek eta Haritz Harreguy teknikari eta musikariak ere esku hartu zuten. Grabatu ostean, lana Garate estudioan nahastu zuten. Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak argitaratu zuen.

Taldeak rock indartsua egiten du, ñabardura askorekin, eta tarteke, Zaloaren ahotsarekin, giro lasaiak lortuz. Lehengo eta gaur egungo iturrietatik edaten dute. Abestiez gain, CDan *Zutaz orotzen* abestiaren bideoa sartu zuten. Bideo hori Haimar Olaskoagak eta Iñaki Beraetxek egin zuten. Disko horrek oso harrera ona izan zuen, eta Euskal Herrian hainbat kontzertu egin zituzten.

Une honetan, Eibarko taldea disko berria grabatzen dabil -dagoeneko bukatutzat eman dezakegu, argitaratzeko zain-. *Lotuta egon arren* izenburupean kaleratuko dute, eta hamaika kantu jasoko ditu, guztiak taldekideek idatzitakoak. Lan hori



Kokein taldeak laister bigarren diskoa izango du kalean.

Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak argitaratuko du, aurrekoa bezalaxe.

Oraingoan ere Pilt taldeko Rafa Ruedak eta Xenpek lagun-

duko diete, grabaketa lanak egin ahal izateko.

Bestalde, orain dela gutxi, PAM eta Julio Kageta taldeetako musikari Iker batu zaie, eta

orain boskote dira. Laister *Lotuta egon arren* kantuaren bideo-klipa grabatuko dute, Haimar Olaskoaga eta Iñaki Beraetxeren eskutik.

GAZTELUPEKO HOTSAK

## Euskal Herriko musika gazteen taldeen gida egin gura dute

I.B.

Gaztesarea elkarteak Euskal Herriko musika talde gazteen gida egin gura du. Helburua da diskorik ez daukaten taldeak edota diskoetxe ez-komertzialek in lan egiten dutenak aditzera ematea.

Gaztesarea elkarteak euskal musika talde gazteak sustatzeko asmotan egin duen egitasmoa da Musikagida. Ezagun da Euskal Herrian ehunka musika talde daudela, baina gehienak ez dira ezagutzera ematen. Kontzertuak eskaintzeko toki ugari ere bada- go (gaztetxeak, tabernak...), baina joera da musika talde berdin- netara jotzea.

Horregatik, Gaztesarea elkar- teak gura du talde horiek aditze- ra eman: liburuxka batean bildu eta eurekin harremanetan jar- tzeke erraztasunak ematea.

Musikagida horretan esku hartzeko bi aukera daude: bata

da honako webgunean sartzea: [www.musikagida.gaztesarea.net](http://www.musikagida.gaztesarea.net) eta bertan azaltzen den fitxa bete.

Bestea da honako informa- zioa e-postaz, telefonoz edo pos- taz bidaltzea: taldearen izena, tal- dekideen aurkezpena, taldearen bilakaera edo aurkezpen testua, argazkia, e-posta eta harrema- netarako telefonoa. E-postaz ([musikagida@gaztesarea.net](mailto:musikagida@gaztesarea.net)), ohiko postaz (Gaztesarea/Mar- tin Ugalde Kultur Parkea/Guda- rien etorbidea 8/Andoain 20.140/Gipuzkoa) edo telefonoz (943 59 35 88) bidaliz gero, urria- ren 28a baino lehen aurkeztu

beharko dute gidarako beha- rrezko duten informazio hori.

### TALDEEN ETA BESTELAKOEN INFORMAZIOA

Musika taldeen zerrenda handia batzeaz gain, beste mota bateko informazioa ere sartu gura dute. Izan ere, Gaztesarearen helbu- rua da gida horrek ehun bat orri izatea eta 400 musika talde adi- tzera ematea.

Horrez gain, hainbat elka- rriketaz hornitu gura dute gida, eta horien bitartez beste espe- rientzia batzuk kontatu gura dituzte. Honako gaiak jorratuko dituzte: hain zuzen ere, grabazio estudio alternatiboak, musika talde gazteen elkarteak, musika sustatzeari garrantzia ematen dioten gaztetxeak, emakumea euskal musika talde gazteetan, diskoetxe alternatiboak eta beste batzuk.

Musikagida hori autofinan- tzatzeko, publizitate moduluak eskainiko dizkiete taberna eta kontzertu aretoei.

*Euskal Herrian  
zabaldu gura duten  
gida osatua egin  
gura dute talde  
trikiak batuta*



Musika talde gazteendako oso zaila da aditzera ematea.

ARRASATE PRESS

## ELKARRIZKETA

TYTTI THUSBERG/DISEINATZAILEA

## “Mundu hau zaborrez beteta dago; birziklatzearen alde nago erabat”

IKER BARANDIARAN

Tytti Thusberg izen handiko diseinatzailea da. Finlandiarra da, baina azken urteotan Euskal Herrian bizi da. Birziklatutako materialekin jantzi-eskultarak egiten ditu. Erakusketa ikusgarria ipini du Monterronen.

**Finlandian jaio zinen, baina azkeneko urteotan Euskal Herrian bizi zara. Nolatan etorri zinen?**

Orain dela zortzi urte Finlandiako arte beka batekin Euskal Herrira etorri nintzen. Diseinu lehiaketa bat irabazi nuen eta beka eman zidaten. Pentsatu nuen Finlandiatik kanpora joatea, beste kultura bat ezagutzea. Ardiak eta artilea dagoen leku batera joatea pentsatu nuen. Txikitatik etxean Euskal Herriaren gainean asko entzun dut eta hona etortzea erabaki nuen. Izan ere, orain dela hogeita hamar urte, gure osaba Txuri Urdineko entrena-tzailea izan zen. Urte erdirako etorri nintzen, baina hemen nago oraindik. Artelekun hiru urtez egin nuen lan, eta hemen ezkondu naiz euskaldun batekin. Hemengo artilearekin ezinezkoa da feltroa egitea. Latxa oso gogorra da, euskaldunen moduan.

**Zein da Arrasatera ekarri duzun erakusketa?**

Ordiziako Barrena kultura etxean erakusketa hori egin nuen urtarrilean. *Modales* izena dauka. Oso harrera ona izan zuen. Instalazio bat da. Artelanak eskultarak dira eta jantzien forma daukate. Ikusteko eginak daude. Artelanak egin ditut etxeko hondakinak erabilia eta ospitaleetako material birziklatuarekin. Bi arlo horiek urrun daude modatik. Kontraesanak dituzte. Erakusketa honek metafora handiak ditu, sinbolikoa da, eta umore handia dauka.

**Edozein elementu birziklatu eta arte bilakatzen duzu. Artea edonon dago? Edozerekin egin daiteke artea?**

Bai, edozerekin egin daiteke artea, baina gogoratu behar da testuingurua. Testuinguru barik ez dut uste artea egin daitekeenik.

**Zuk egiten dituzun jantziak ez dira janzteko. Zer erakutsi gura duzu?**

Kritika soziala da, kontsumismoaren kontrakoa. Moda askotan kontsumismoa dago. Adibidez, goi mailako jostintza artea da, baina arte hori ibiltokietan bakarrik ikus daiteke, eta jende arruntari urrun gelditzen zaio. Sorkuntza eder horiek ikuskizun moduan saltzen dira, baina elitekoendako bakarrik egiten dituz-



ARRASATE PRESS

“Kontsumismoaren aurkako kritika soziala egiten dut. Moda askotan kontsumismoa dago”

te. Erakusketa honetan egin ditut *ibiltokiko jantziak* leku publikoan. Erakutsi gura dut material txiroarekin posible dela gauza politik egitea. Ez da beti beharrezkoa gauza berriak erostea. Mundu hau zaborrez beteta dago; birziklatzearen alde nago.

**Ez duzu inoiz janzteko arropak egitea pentsatu?**

Janzteko arropak pila bat egin ditut eta egingo ditut. Jostuna naiz eta diseinatzailea ere bai. Sasoi baten antzerkian eta operan egin nuen lan. Artea moda baino askeagoa da. Bestalde, ez nago diseinu onaren aurka; baina moda inposaketaren kontra bai. Modaren zikloak laburregiak eta azkarregiak dira. Ez dut nire burua sistema horren barruan

“Nire arropak bizitza modatik kanpo izatea gura dut. Ez daude aldi baterako diseinatuta”

ikusten. Nire arropak bizitza modatik kanpo izatea gurako nuke. Ez daude aldi motz baterako bakarrik diseinatuak. Urte asko iraungo duen eta bizitza propioa izango duen arropa maite dut.

**Erakusketa honetan etxe-koandrea hartu duzu eredu. Zergatik?**

Bi seme ditut eta ni neu ere etxe-koandrea naiz. Oso pozik nago etxean umeekin. Batzuek ez dute hori gustuko, baina nire ustez pribilegiatua naiz. Gero eta garrantzi handiagoa ematen diot familiari. Etxekoandreak eta moda nahiko urrun daude. Orokorrean etxe-koandreak ez daukate dirua azken sorkuntzak erosteko. Horrekin apurtu behar da!

## Domekan, ‘Ezetz lepoa jarri’ ikuskizuna Amaia antzokian

I.B.

Etzi, domeka, Kanpingags antzerki taldeak *Ezetz lepoa jarri!* ikuskizuna eskainiko du Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da, eta ikusleek ikuskizunean esku hartu ahal izango dute.

Etzi, domeka, antzezlan berezia egingo dute Amaia Udal Antzokian. Kanpingags taldeak *Ezetz lepoa jarri!* lanaren euskarazko estreinaldia egingo du Arrasaten. Lan horretan ile-apaindegi baten jazotako krimena kontatzen dute, komedia estiluan.

Lan horretan misterio handia izango da, eta susmagarriak asko izango dira. Are gehiago, legearen ordezkariak nahiko arrazoi izango dute pertsonaia bakoitzarengan susmoak edukitzeko.

**IKUSLEEK ESKU HARTUKO DUTE**

Ikuskizunaren une zehatz baten, aretoko argiak piztu eta ikusleek -gura dutenek- hiltzailea zein den deskubritu beharko dute. Hain zuzen ere, pistak mota guztietakoak izango dira, eta antzez-

lanaren amaiera ikusleen botoek erabakiko dute.

Antzezlanak hainbat amaiera dauzka aurreikusita; dagoen aukera bakoitzeko, bat. Arrazoi horregatik, ikusle askok antzezlanaren behin eta berriro ikusi dute. Irudimenez betetako erantzun bat baino gehiago entzuten da, bai taula gainean eta baita ere eserlekuetan. Horregatik, aktoreen bizkortasunak osatuko du antzezlanaren. Lan bizkor horretan xelebrekeria eta bizkortasuna eskutik lotuta joango dira. Ikusleek eurek daukate istorioa muga barik nahasteko ahalmena eta eskumena.

**AKTORE EZAGUNEK LAN EGITEN DUTE**

Antzezlan horren idazlea Paul Portner da. Testua moldatzeaz arduratu dena Carlos Zabala da, eta lan honen zuzendaritzaz Pere Planella arduratu da, Jokin Oreiren laguntzarekin.

Euskarazko bertsioan aktoreak honako hauek dira: Jose Ramon Soroiz, Kontxu Odriozola, Joseba Apaolaza, Asier Hormaza, Ainhoa Aierbe eta Kiko Jauregi, hain zuzen ere.



ARRASATE PRESS

Ikusleek eurek daukate istorio hori muga barik nahasteko ahalmena.

## LABUR

### Aktore ezagunak protagonistak dituzten ezohiko bi komedia eta ‘Thunderbirds’

Gaur, egubakoitza, bihar eta astelehenean, *Las mujeres perfectas* filma emango dute Amaia Udal Antzokian. Horrez gain, bihar, zapatua, *Thunderbirds* filma emango dute gaztetxoendako. Datorren egunean, hilaren 21ean, berriz, *The ladykillers*.

*Las mujeres perfectas* komedia da eta 93 minutu irauten du. Frank Oz da zuzendaria (*In & Out*, *The Score*...). Joanna enpresari arrakastatsua lanetik botako dute eta shock gogorra izango du. Senarra eta biak herri bitxi batera joango dira. Herri horretako emazteak oso bitxiak dira, esanekoegiak.

Protagonistak honako hauek dira: Nicole Kidman (*Molin Rouge*, *Los otros*, *Dogville*...), Glenn Close (*102 dalmatas*...) eta Christopher Walken (*Funerarias S.A.*, *Sleepy Hollow*...), besteak beste.

*The ladykillers* filma Joel eta Ethan Coen anaiek zuzendu dute. 104 minutu irauten du eta komedia da. Eskola txikiko lapur batzuek kasino-ontzi bateko dirua hartu gurako dute. Protagonistak honako hauek dira: Tom Hanks (*Naufrago*...), Marlon Wayans (*Scary movie*...) eta J.K. Simmons (*The mexican*...).

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Ze urtekoa da Zaldibarko Txapelketako irabazle horien argazkia?  
Eta, zein zen talde horren izena?

**Super BM**

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA.....

Ekarri txartela EGUAZTEN GOIZEAN  
ARRASATE PRESSERA!

**Ian tomate txikitua**  
400 g

**3X1€** 166 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**IÑAKI ORUE**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Iñaki!  
Galderen erantzun zuzena:  
Uarkapen.


ARRASATEKOHISTORIA

Santa Marinako antzinako eliza dela-eta (II)

'MAALAKO ERREBALA' / J. VELEZ DE...

Joan den astean eman genizuen Arrasateko lehenengo eliza nagusiarren berri. Josemari Velez de Mendizabalek *Maalako Errebala* liburuan aditzera ematen duenez, Santa Marinari eskainitako elizatxoan zegoen Arrasateko lehenengo parroikia, Santamaña baserrian, hain zuzen.

Baina Arrasateko idazleak gogoeta egiten du horren gainean: "Neure buruari sarritan eginko galdera bat da ondokoa: 1260 baino lehenagoko eliza nagusia, non bizi ziren *arressatearrak*, euren eliza hain kokapen altutsuan edukitzeko? Ditugun datuetatik ezin da zehatz mehatz galdera horri erantzutea. Dena den, eta logikari irudimenaren ukituaz lagunduta, zergatik ez pentsatu *Santamaña* ezin zitekeela egon populazioaren gehiengoa bizi zen tokitik urrun? Ezin al genezake irudikatu *Arresate* ireki eta etxe sakabanatu bat, bizilagunik gehien zuen aldea *Uarkape* ondokoa zelarik? Irudikapen honek ez du esan nahi baztertzen dudunik herriakoko kokaleku zaharreen etxe multzo gehiago ez izatea, geroago ikusiko dugun



'ARRASATE. IRUDIAK' LIBURUA

"San Juan Batailzailea parrokiako artxibategian dokumentu ugari dira Santa Marina eliza aipatzen dutenak".

bezala —adibidez— Oñatiko Jau-nak inguruko beste lur eremu batzuetan errota eta etxeak bazituelako. Edozein modutan, Santa Marina gurtzeko eraikitako elizaren ingurura ezin ziren bizilagun asko bildu... garaiko herri-ka hartan banaka batzuk izango

*"Zergatik ez pentsatu 'Santamaña' ezin zitekeela egon populazioaren gehiengotik urrun?"*

baitziren baserriak, ezelako hiri-osotasunik gabe".

Orain arte esandakoarekin, Josemari Velez de Mendizabalek suposamendu batekin amaitu gura du: Mondragon sortu aurreko herriakoko populazio gehiena Aramaio ibaiko ezkerrean bizi

zela, hain zuzen. Baina idazleak adierazten du badakiela suposamendua baino ez dela, eta ez dela datu bakarra ere eman teoria hori frogatzeko.

"1260tik aurrera Mondragon hiribildua osatzen joan zen, horixe baitzen Alfontso X-aren asmoa, bere interesak berme gehiagorekin zaindu ahal izateko. Dena den, eliza berria eraiki bitartean kultuak *Santamaña*-ren adokaziopekoan segituko zuela pentsatu behar da, ez baita egun bate-tik bestera azpiegitura antolatzen. Eta, gogoratu behar da harresien artean dena egiteko zegoela. Lehen aipatua geratu den bezala, 1305erako lehen sutea jasan zuen hiriak. Ez dakigu haren ondorioz eliza erre zen ala ez, ezta ordurako tenplua zenik ere; 1318ra heldu behar da San Juan-en gaineko lehen aipamena edukitzeko.

San Juan Batailzailea parrokiako artxibategian dokumentu ugari dira Santa Marina eliza aipatzen dutenak. Berari toponimo batzuk dagozkio, besteak beste, Alday, Agirre eta Iparragirre. Eta dokumentu horiek eskainitako argibideei esker badakigu Santa Marinaran urte luzez kultua egiten segitu zena, herriko parrokiari atxikia".

# Txirritola

Egubakoitza

ARAMAIOKO ASTEKARIA

2004ko urriaren 15a

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02


## Herritarren parte-hartzea bultzatu nahi dute Erretiratuen Eguneko azokan

UBANE MADERA

Udala dagoeneko badabil Erretiratuen Eguna prestatzen, urriaren 30ean izango da-eta. Aurten, deialdi berezia egin gura dute herritarrek azokan parte har dezaten. Anima daitezten, Udalak dirulaguntza polita emateko asmoa du.

Erretiratuen Eguneko azoka egiten hasi zirenean, helburua zen herriko produktuen azoka egitea. Baina urteekin hori aldatuz joan da. Hala, gaur egun, dezentte gehiago dira kanpotik datozen saltzaileak herrikoak baino. Iaz, adibidez, 25 saltoki ipini zituzten eta bederatzi bakarrik ziren Aramaiokoak. Horren aurrean, eta herritarren parte hartzea bultzatzeko asmoarekin, Udalak erabaki du aurten deialdi berezia egitea. Rosa Mondragonek esan digunez, besteak beste, dirulaguntzak emango dizkiete saltokia ipintzen duten herritarrei.

**GOIZETIK ARRATSALDERA ARTEKO JAI**  
Hala, urriaren 30ean, goizean trititilarien doinuek iragarriko dute Erretiratuen Eguna. Eta dagoeneko Nardeaga kalean gertu-ger-



Iaz, 25 saltoki izan ziren azokan, eta horietatik bederatzi bakarrik ziren aramaioarrenak.

tu izango da azoka. 12:00etan, berriz, urtean hil diren erretiratuen aldeko meza esango dute parrokan. Horren ostean, Lagun Artean dantza taldekoek dantza erakustaldia egingo dute. Eta

14:30ean erretiratuendako bazkaria izango da, kiroldegian.

Rosa Mondragonek iragarri digu laster ipiniko dituztela salgai bazkarirako txartelak (sei euro). Euskadiko Kutxan edo Vital

Kutxan erosi ahal izango dira, udaletxean bertan eta baita auzo-eta ere. Izan ere, auzo-alkateei emango zaizkie saltzeko txartel batzuk. Bazkalostean dantzaldia eta opari banaketa izango dira.

*Herritarren parte-hartzea bultzatzeko dirulaguntzak emango ditu Udalak*

*Urtero moduan, erretiratuek bazkaria egingo dute kiroldegian, dantzaldi eta guzti*

*Udalak laster ipiniko ditu bazkarirako txartelak salgai, sei euroren truke*

### HERRITARREN HITZA / Arantza Ibabe • Langilea

## Homosexualitatea dela-eta

Bai, aspaldi txoko honetara gerturatu barik eta hemen nabil zuei zertaz berba egin ez dakidala. Gai nahikotxo daude baina ez dakit zeri oratu.

Oso-oso modan dagoen batekin hasiko naiz. Espainiako Estatua abiaraztekoan dago, edo agian abiarazita izango da lerro hauek argia ikusten dutenean bikote homosexuali zibilez ezkontzeko eta umeak adoptatzeko eskubidea bermatuko dien legea. Ni zeharo pozten nau; legearen aurrean zergak ordaintzeko guztiok berdinak bagara, zergatik dago gizartea mailakatu eskubideei dagokie-

nez? Eta zer esanik ez Elizaren aurrean... akaso Jainkoa batzuegan bakarrik dago? Ez, ez dut uste, zorionez.

Ai, Elizaren sekretutxo ezkontuak jakingo bagenitu, zenbatek itxi beharko luke ahoa gai horri dagokionez behintzat... Dena den, hasi dira elizetako armairuetatik ere hainbat ateratzen. Eta lanbidea utzi egin behar izan dute haien orientazio sexuala debekatuta



**“Zer irabazten dute homosexualitatea errefusatzuz?”**

baitago elizan. Behin eta berrito galdetzen diot nire buruari zergatik ia erlijio gehienek, nik ezagutzen ditudanen artean jakina, ez dakit noren izenean arbuiatzen duten homosexualitatea, haien artean ere homosexualak daudenean. Ez dut ulertzen; inork hori esplikatzetik bai? Nori interesatzen zaio hori horrela izatea? Zergatik? Zer irabazten dute homosexualitatea errefusatzuz?

Zer? Batetik Elizak, eta gizarte zibilak? Ez ote daude erlijioak itsatsiegi azken horretara?

Espainiako Estatua teoriko ki laikoa den arren, erlijio kutsu nabaria du eta hori ez da ona. Erlijio bakoitzak haren fededunendako jarri behar ditu arauak ez gizarte osoarentzat. Nik beti inbidia izan diot frantses gizarteari, arazo sozialetan beti ibili delako espainolaren aurretik. Nahiz eta sinbolo erlijiosoen legearekin batere asmatu ez duen. Adierazpen askatasunerako eskubidea kenduz gero zer geratzen da laikoa izan arren gizartea?

### LABUR

## Mendiko bideak zaintzeko egin beharreko lana

Mendiko bideak direla-eta, oraingo honetan kritika bat helarazi digu TXIRRITOLA-ko irakurle batek. Inurrirako bidea partikular batek garbitu duela ikusita, horrek Udalak egin beharreko lana izan beharko lukeela adierazi nahi izan du. Gaineratu digu bide horiek garbitzeko urtero egin beharko litzuzkeela Udalak garbiketaren lana, eta ez sasiak-eta larregi hazten utzi eta oso noizean behin garbitzen ibili.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak) . . . . .	945 44 53 40
Botika . . . . .	945 44 50 03
Udaletxea . . . . .	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate) . . . . .	943 79 71 99
Curutze Gorria (Legutio) . . . . .	945 45 52 52
San Martin Eskola . . . . .	945 44 50 04
Taxia eta autobusak . . . . .	945 44 53 33
Udal kiroldegia . . . . .	945 44 53 35
Postetxea . . . . .	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea . . . . .	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) . . . . .	943 78 28 00

## AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

## OHARRAK

## BARIKUKO ZINEMA

Oraingo honetan, Tim Burton zuzendariaren *Big Fish* filma emango dute. Fantasia, drama, umorea eta abenturak konbinatzen dituen filma horretan Ewan McGregor, Albert Finney eta Jessica Lange aktoreek parte hartzen dute. 125 minutuko iraupena du.

## OSOKO BILKURA

Oraindik ez digute gai zerrendarik aurreratu, baina Udaletik jakinarazi digute datorren urriaren 27an egingo dutela hil honi dagokion osoko batzarra.

## GRIPEAREN KANPAINA

Bukatzeaz dago gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina. Interesa duenak adi ibili beharra du, datorren urriaren 31ra arteko astia du-eta.

## BI IRTEERA

Datorren asteburuan (hilak 23-24) bi txango izango dira Aramaiotik aterata. Bate-tik, 54an jaiotakoek Errioxara txangoa egingo dute. Bestetik, erretiratuak Gernikara joango dira, azokara.

# Bertso eskolari babes handiagoa emateko elkarteak sortu dute

UBANE MADERA

**Aramaioko bertso eskolari babes emateko elkarteak sortu dute: ARBE, Aramaioko Bertso Eskola. Xabier Agirre da lehendakaria. Elkarte berriaren helburua da bertso eskolarako baliabide gehiago lortzea: dirulaguntzak, esaterako. Irakasle berriak ere badituzte.**

Udaberriari hasi ziren Aramaioko bertso eskolakoak elkarteak sortu guran. Gabezia zutela ikusten zuten, elkarte moduan eratuz gero, bertso eskolarako baliabide gehiago lor zezaketelako. Hala, egin beharreko burokrasia konitu guztiak egin eta gero, ARBE izeneko elkarteak jaiotzen berri da. Andere Arriolabengoak kontatu digunez, gutxi bada ere, dagoeneko lortu dute aurreneko aldiriz Diputazioaren dirulaguntza.

## IRAKASLE BERRIAK

Horrez gainera, Andere Arriolabengoak konfirmatu digu irakasle berriak dituela aurtengo bertso eskolak: San Martin Eskola-



Irakasle berriak dituen bertso eskolak: Andere Arriolabengoak, Lierni Altuna, Iker eta Gillen Agirre eta Iñaki Viñaspre.

koekin Andere berak jardungo du; eta eskolaz kanpoko taldeekin Lierni Altunak, Iker Agirrek Gillen Agirrek eta Iñaki Viñasprek.

Bestalde, kontatu digu bertso eskolak abiarazi duela aurtengo ikasturtea. Eskolako ikasleekin irailaren 27an hasi ziren. Eskolaz kanpoko taldeekin, berriz, bari-

kuan, hilak 8 hasi zuten ikasturtea. Gaineratu digu iaz baino ikasle gehiago dituela aurtengo ARBEk, 20 lagundik gora. Eta oraingorik ere badutela gehiagorendako lekua.

## BOTEPRONTOAN/ Xabier Herrarte · Arriolako auzo alkatea

### “Arriola auzoak ez du aparteko etorkizunik baina duenari eutsi egiten dio”

Arriolako auzo alkate Xabier Herrarte. Izatez arrasatearra da, baina esan digun moduan, ama aramaiarra du, hantxe hazi eta hezi da eta aramaiarra sentitzen da arrasatearra baino gehiago:

**Lehenengo aldiriz auzo alkate?**

Bai.

**Pozik hartu duzu kargua?**

Ez da aparteko zerarik. Lan asko ez dugu egiten auzo alkateek. Auzo txikia da, guztiok oso ondo konpontzen gara eta ez dago arazo handiegirik.

**Zein behar dituzue Arriolan?**

Gauza dezente falta dira. Gasik ez dugu. Saneamendua da zaharra. Errekarako hodiak apurtuta daude. Argindarraren hariak lurpetik sartzea falta da...

**Eta badago egiteko asmorik?**

Aramaioko Udaletxean, diru problema dago, eta bukatu beharreko bestelako lan batzuk dituzte.

**Hortaz, zure agintaldian egiteko aukerarik ez duzu ikusten?**

Ez. Bueno, oraingorik ez duzu hiru urte falta dira, baina... Eta bestela, auzolanean-edo lanen bat egiteko asmorik baduzue?

Ez dago aurreikusita. Ez dugu aparteko premiarik. Egiteko



“Zelaiak garbi kontserbatu nahi badituzte, denon artean ordaindu beharko litzateke”

dagoena, udaletxeak egin beharra du.

**Aramaioko beste leku batzuetan moduan, Arriolan ere ezkongabe asko dago?**

Etxe bitan mutilzahar bi daude, baina bestetan badaude ezkonduak umeekin, orain dela bi urte beste familia bat etorri zen, ume bat izan dute, geu ere bagoaude, ume bat dugu eta beste bat itxaroten gabilta... Auzoak ez du aparteko etorkizunik baina duenari eutsi egiten dio.

**Geroago eta arazo handiagoak daude zelaiekin. Geroago eta zelai huts gehiago daude, eta pinua sartu nahi dute baserri- tarrek, baina askotan ezin...**

Udaletxeak arauak atera gura zituen, hori zaintzeko, baina oraingorik ez da ezer onartu. Auzo alkateek geure iritzia eman genuen. Eta bai, zelaie- tan-eta badoaz pinuak sartzen.

“Parke naturalak-eta ederrak dira, baina beti kontserbatu izan dira baserri- tarren kontura”

Baina nik ez nioke kulpa bakarrik baserri- tarrei botako. Paisaia, ingurumena... zaindu egin behar da, baina ez bakarrik baserri- tarren kontura. Baserrietan-eta dagoeneko jende nagusia dago, ez dute askotan jarraipenik eta bestela ere diru- iturririk ez dute. Zelaiak garbitzekotan musu truk garbitu beharko litzukete. Eta bai, jendeak utzi egin dio eta samurrena egin du: pinua sartu. Eta niri, adibidez, gustatuko litzaidake landare autoktonoak sartzea: gaztainak, haritzak, pagoak, lizarrak... baina Diputazioetatik ez dago laguntzarik. Arriolako batek, adibidez, zelaietan intxaurrak sartu gura zituen, Diputazio-aren laguntza eskatu zuen eta esan zioten horretarako ez dela laguntzarik. Pinua sartzeko, aldiriz, ematen dute. Erakundeek ez dute batere laguntzen, eta lursail horiek garbi izan gura badituzte, baserri- tarrek errenta edo zerbaiten bidez konpentsatu egin beharko dituztela uste dut. Izan ere, haiendako zelaiak garbitzea gastua da eta batez ere lana da, eta herriak hori eskatzen badu, uste dut azkenean hori denon artean konpentsatu beharko litzatekeela.

## ERRETRATUZAHARRA

Portaloian  
egon zen  
gasolindegia

**A**rrasatear askori ezaguna egingo zaizuen argazki edo irudi bat ekarri dugu: Portaloian zegoen gasolindegia. *Juanitaren gasolindegia* zen hura; hala esaten zitzaion Arrasaten. Izan ere, ugazaba Juanita Muñoz Perosanz burgostarra zen, Castillo de la Vegakoa. Hain zuzen ere, bera da argazkian agertzen den emakumea. Gasolina-hornigailu bakarra zuen *Juanitaren gasolindegia*. Gainera, hasieran, eskuz zebilen, palanka batekin. Geroago egin zuten elektriko. Bitxikeria moduan, kontatu digute gasolindegiren parean antzina-ko txiza-tokiak zeudela.

Portaloiko gasolindegia 1985ean kendu zuten. Juanita ugazabak 70 urte zituela eta erretiroa zetorkiola aprobeztatuta, inguruko auzotarrek eskatu zuten gasolindegia ixtea. Kontua da herriaren erdian egoteak kezka piztu zuela herritar askoren artean, gasolindegia batekin duen arriskuarengatik. Hala, gasolindegia kendu eta haren ostean, Portaloiko zorua altxatu egin



zuten, gasolina gordetzeko erabiltzen zuten lur azpiko biltegia ere kentzeko.

Edozelan ere, eta auzotarren kezka piztu zuen arren, arrasatear askok

hartu izan dute automobilarendako erregaia Juanitarenean. Arrasateren erdi-erdian zegoen, eta bestela, Hostaleraino joan beharra zegoen.

**Argazkia:** Iban Bolinaga  
**Berriemailea:** Arrasateko Udala.  
**Urtea:** 1985.

## NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Aldaketa  
handiak  
Kontzezinon

**E**rretratu zaharrari begiratuta konturatuko gara azken urteotan Kontzezino ingurua zenbat aldatu den. Argazki horretan, baina, Kontzezinoko etxeak baino gehiago San Andreskoak ikusten dira. Hori bai, Kontzezino eta San Andres batzen zituen pasabide estua ondo ikusten da, eta baita errekarren gainean zeuden tailer zaharrak ere.



≈ 1997

Argazki zaharra 1997an atera bazuten ere, 1998an hasi zituzten inguruotako lanak. LKSk egin zuen urbanizazio proiektua.



2004

San Andresko biribilgunea, errepide berria, Kontzezinoko etxe berriak, San Viatorrerako eskalera... Aldaketa handiak izan dira inguruotan.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

BELEN MAIZTEGI

*Domu Santu egunerako  
lore-sortak, zentroak,  
eta abar.*

*Enkarguak hartzen dira*

*Tele-ordainketa*

Biteri etorbidea 13  
Arrasate  
Tel.: 943 08 15 44

**LURAK**

 **Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak


Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

# GRUPO RKUZ

1950  
Zure etxea da  
2004



**RKUZ**  
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20  
Te./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABALETA

**ETXE MOBEL**  
MUEBLAS

Araba etorbidea 5  
Te./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



**RKUZ**


SUKALDE INTEGRALA


Mitarte 3  
Te./Faxa: 943 77 04 55  
ARETXABALETA

**RKUZ**

ELEKTROGAILUAK

Andramari auzunea  
Te./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABALETA




expert 

FAGOR 

# Etxeko konponketak

## Elektrizitatea

 Aranzabal Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak  
Antena kolektiboak  
Zerkaosteta 15  
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

## Leihoak



**ARGI PLASTIK**  
PVC, aluminio termiko  
eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.  
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Margoak

# Apain

MARGO ETA APAINKETA  
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



**ION LEIHOAK**

PVC • Aluminioa RPT  
Poliuretanoa • Bitarikoak  
**Ateak • Zoluak**

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE  
Tel./Faxe: 943 79 11 35

## Eraikuntzak

**Arrasate  
eraikuntzak SL**

Meatzerreka auzoa 30  
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

# Jovi

10.000 KOLORETAKO MENUA  
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



**Izcue  
Irurzun**

Igeltserotza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Igeltserotza



**ZUTARRI S.L.**  
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.  
Tel: 943 79 67 78 Faxe: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora